

INDUSTRIA-PRODUKZIOAREN INDIZEA 2016KO APIRILA


## Euskal AEko industri jarduera %0,7 murriztu zen 2016ko apirilean

### *Industri Produkzioaren Indizeak %3,5eko gehikuntza izan du 2016ko lehen lauhilekoan*

Eustaten datuen arabera, 2016ko apirilean %0,7 murriztu zen Euskal AEko industri produkzioa lan-egutegiko baldintza homogeenetan, 2015eko hil beraren aldean. %3,5eko gehikuntza 2016ko lehen lau hiletan.

Urtaroen eragina zuzenduta, %0,9 murriztu zen industri produkzioa, aurreko hilarekin, 2016ko martxoarekin alderatuta.

**Euskal AEko industri produkzioaren indizearen urte-artereko aldakuntza-tasa. (%)**  
Jaiegunen eraginetatik zuzendua



2016ko apirilean, 2015ekoaren aldean, sektore handietan: Ekipo-ondasunak %4,8 gehitu, Bitarteko ondasunak %1,4 jaitsi; Energia %8,7 jaitsi. Kontsumo ondasunak %4,1 jaitsi; iraunkorrak %15,6 jaitsi, ez-iraunkorrak %0,6 gehitu.

Euskal industriako pisurik handieneko sektoreetan, jaitsierak zortzietatik zazpitan, 2016ko apirilean, urte artean. Jaitsierarik handienak: Material eta ekipo elektrikoa % -10,3; Energia elektrikoa, gasa eta lurruna % -8,3.

Berriz, gehikuntzak Garraio Materialean (%13,5) eta Kautxu eta plastikoan (%2,6).

**1. taula. Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Sektorre nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak**

	m / m-12
<b>A38 SEKTORIZAZIOA</b>	
<b>SEKTORE NAGUSIAK<sup>(1)</sup></b>	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	-0,6
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	-8,3
09 - Kautxua eta plastikoak	2,6
13 - Makineria eta tresneria	-7,4
14 - Garraio-materiala	13,5
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	-2,3
12 - Material eta tresneria elektrikoa	-10,3
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-1,7

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

**Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea**

Apirileko Industria-Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaera lurraldeetan: Araban %+8,5; Bizkaian %-2,2; Gipuzkoan %-4,1.

Hil arteko negatiboa hiru lurraldeetan: Araban %-0,6; Bizkaian %-1,3; Gipuzkoan %-0,8, 2016ko martxoaren aldean.

**2. taula. Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Hazkunde-tasak. Behin-behineko datuak. 2016ko Apirila**

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazionalizatuak	
	Api2016 / Api2015	A(Api2016) / A(Api2015)(*)	Api2016 / Mar2016	Mar2016 / Ots2016
<b>Indize orokorra</b>				
<b>Euskal AE</b>	<b>-0,7</b>	<b>3,5</b>	<b>-0,9</b>	<b>0,2</b>
Araba/Álava	8,5	11,8	-0,6	2,9
Bizkaia	-2,2	1,3	-1,3	0,7
Gipuzkoa	-4,1	1,4	-0,8	-1,9
<b>ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK</b>				
Kontsumo-ondasunak	-4,1	0,4	-1,8	0,4
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-15,6	-1,9	-6,1	0,2
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	0,6	1,3	-0,2	0,4
Ekipo-ondasunak	4,8	10,8	1,4	-2,4
Bitarteko ondasunak	-1,4	1,9	-2,1	0,9
Energia	-8,7	-1,8	-3,7	7,4

(\*) 2016ko urtarriletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2015eko aldi beraren aldean

**Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea**

**Informazio gehiago:**

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: [servicioprensa@eustat.eus](mailto:servicioprensa@eustat.eus) Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizeari (IPI) buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizeari (IPI) buruzko datu-bankua